


# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

288 - 2021eko otsaila



PLAZAOLA KIROLGUNEA,  
INOIZ BAINO SEGURUAGO



## POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera:  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

**TAXILON**



Lontxo  
Otamendi  
Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: [lotamendi5@gmail.com](mailto:lotamendi5@gmail.com) Atallu - Araitz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
[urzubi@hotmail.com](mailto:urzubi@hotmail.com)



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Larraungo Udala, Printza, Bertsozale Elkarte.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

04



**KUXKUXEAN** Otsaileko zorion agurrak.

08



**ELKARRIZKETA**



Plazaola Kirolgunea.

12



**IZAN GAZTE** "Ombuaren itzala".

14



**BATZARRE** Mainea lezeko fosilak.

18



**ERREPORTAJEA**



Araxes Garaiko Zabor Mankomunitatea.

22



**KULTURA** Etxepare Saria.

27



**ELKARRIZKETATXOA** Maria Urrestarazu.

28



**PLAZATIK PLAZARA** Amazabalgo jantoki zerbitzua.

31



**AGENDA**





### Ane Eguzkitza Telletxea

Otsailaren 3an, bi urte.  
Aunitz urtez, Ane ttikia! Musuak familia guztiaren partetik. Zorionak!

### Itxaso Oreja Altuna

Otsailaren 1ean, 6 urte.  
Zorionak politte!!! Ongi ongi pasa zure eune. Muxu haundi bat denon partez!!



### Irati Garciarena Guridi (Gorriti)

Otsailaren 23an, 14 urte.  
Zorionak Irati!!! Ongi pasa zure eguna! Jarraitu beti bezain alaitua izaten, ez aldatu! Besarkada bero bat etxekoan partetik!

### Nere Zabaleta Olasagarre

Otsailaren 11n, 15 urte.  
Zorionak Lekunberriko Nere Zabaleta Olasagarreri, otsailaren 11n, zure urtebetetzea duzulako. 15 muxu haundi etxekoan partez!



### Urtzi eta Unai Argiñarena Saralegi

Unaiek ilbeltzaren 16ean, 6 urte bete zituen eta Urtzik otsailaren 5ean, 8 urte beteko ditu. Ongi pasa zuen eguna matteak eta segi orain arte bezain jator eta alai. Muxu haundi bana etxekoan partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

M. Angeles  
Urrizalki

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

Diario Vasco eta Diario  
de Navarrako  
Korrespontsala

948513056  
699179437

**Atabal**  
akindogia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
948513151

**MAITE**  
HARATEGIA

948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

**BERTAKO  
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako  
platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere  
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU



## IHOTERIK EZ!

Aurten ihoteak ere ezin izanen ditugu ospatu. Uitziazarrak izan ohi dira urtero ihoteak ospatzen goiztiarrenek eta aurten koronabirusa dela eta ezin izan zuten ohiko puskabilitza eta otordurik egin. Gainerako herrietan ere ez da ekimenik antolatzea aurreikusten.



## HELIPORTUA LEKUNBERRIN

Osasun larrialdietarako heliportu bat egokitzen ari dira Urzubiko errotondan. Lekunberri eta Larraunen ez ezik Araitz-Betelun egon daitezkeen larrialdi kasuei erantzuteko aurrerapauso handia izanen da



## TABLETAK JUBILATUENTZAT

Lekunberriko Udalak tabletak jarri ditu Jubilatuen Elkarteko bazkide eta Jubilotekako erabiltzaileen eskura. Bizi dugun egoeran ezinbesteko bilakatu da teknologia berriak erabiltzea eta adinekoak ingurukoekin konektatua egoteko baliabideak ematea du helburu Udalak.

## ► Joxe Otamendi (Gaintza)



*Pasa dit bai neri  
horregatik hasi naiz  
ni orain kantari,  
nahiz ta ezten errexa  
gailentzen berari  
jaso izan dulako  
zorion ugari  
eta orain pastela  
pasa diot Unairi.*

*Elurra ekarri du  
gure txoko guztiak  
zuritu dizkigu,  
jantzi behar izan degu  
gorro ta abrigu  
baserritarroi behintzat  
nahiko lan eman digu  
ganbarako belarrak  
janak jan ditugu.*



Datorren hilean bertsotan jarriko dugu... Unai Barberia!

## AUZO-LOTSA

Non eta zergatik sentitu ote dut nik inoiz inoren lotsa, bizitzan zehar? Leku askotan eta arrazoi ugariengatik, da erantzuna.

Gizarte honetan, jakina da, ezberdinak diren pertsonak edota gehienekin bat egiten ez dutenak, nola edo hala, baztertuak eta zokoratuak izaten direla. Esate baterako, emakumeekin gertatzen da, gizonak ez izateagatik. Beltzekin ere bai, zuriak ez direlako. Txiro eta behartsuekin beste horrenbeste pasatzen da, diru gutxi dutelako. Etorkinei, errefuxiatuei, lesbianeiei, gayei, transexualei, bisexualei, intersexualei, prostitutei, galtzailei, espetxeratuei eta abarri ere berdintsu gertatzen zaie; alboratuak eta zapalduak izaten dira. Zerrenda arrunt luzea izan liteke, ia-ia amaigabea. Gizartea ez da batere solidarioa mota horretako pertsonekin, are gehiago, esan liteke, gehienetan, oso ankerra dela, eta, horrek sufrimendu handia dakar pertsona askorentzat.

Aipatutako pertsona ezberdin eta diferente horien artean, aniztasun funtzionala edota araz kanpoko funtzionaltasuna dutenak dira (elbarriak, urritasunen bat dutenak, ezinduak, gutxiak, ezgaitasun fisikoak edo psikikoak dituztenak: itsuak, gorrak, mainguk, aulki gorpildunak eta abar), izen horiek guztiak eta baita gehiago ere erabiltzen edo inoiz, behintzat, erabili izan dira, pertsona batzuk izendatzeko; denak, gizabanako duinak eta giza eskubide guztien jabeak direnak aipatzeko, alegia. Ez dira izen gutxi, alajainetan!

Bizitzan, batzuetan, pertsonok inoren lotsa pasatzen dugu. Baina, jakina, egoera guztiak ez dira berdinderdinak, edota, beste modu batez esateko, pertsona guztiak ez dute erantzukizun berbera gizartearen eta norbanakoen aurrean.

Oraingo honetan, batez ere azpimarratu nahi ditut, 2003tik 2007ra, Iruñeko Udalean, zinegotzi izan nintzen garaian, alegia, lau urte haietan, nire egoera fisikoarengatik, hau da, aulki gorpildun batean ibili eta bizitzeagatik, gertatu zitzaizkidan hainbat eta hainbat bizipen ezohiko. Baina, aurreko hamarkadetan ere gertatu zitzaizkidan beste pasadizo bitxi eta deseroso batzuk, besteak beste, pertsona publiko batzuekin, esate baterako, Javier Iturberekin, Alfredo Jaimerekin, Juan Ramon Gancedo Iruñeko udal arkitektoarekin eta abar.

### 1 PIXA ERREKA BERNETAN.

Horago esan dudan bezalaxe, bizitzan zehar makina bat pasadizo bizi izandakoa naiz, nire izaera fisikoarengatik.

Honako hauxe izanen da, seguru asko, gogoratzen dudana lehenetariko bat.

Hamar bat urte nituenean, ordurako gaizki samar ibiltzen nintzen fisikoki, gaitz hereditario bat tarteko zela. Giharrak eta orpazurdak ez zitzaizkidan behar bezala garatzen, eta, horregatik, oin puntetan ibili ohi nintzen, modu xeblere samar batean. Hura dela eta, Lekunberriko mutiko batzuek "oin-punta" esaten zidaten, izengoiti moduan, ni iraindu nahian-edo. Ibilera ezohiko hark, erraztasun handiarekin lurrera erortzea ere ekartzen zidan, eta, halaxe joan nintzen handitzen eta hazten iseka eta laidoen batzuen artean; Etxarrin, gure herrian, ez, han betidanik halaxe ezagutu baininduten.

Igande jakin batean, Lekunberriko parrokiatik atera bezain azkar, hara non, herri hartako mutiko txiki bat, ni baino dezente kakanarruagoa zena, niregana hurbildu, eta, batere zalantzarik egin gabe, pitilina atera eta pixa egin zidan goitik behera zangoetan, inolako konplexurik gabe.

Ni, adin hartan, oraindik galtza motxetan ibiltzen nintzen, eta, eskerrak!, bestela, pentsa dezagun zer gertatuko zatekeen, bururatu izan balitzaio gauza bera egitea, baina gaitzen gainean!; askoz ere enbarazu handiagoa niretzat!

Gaur egun, harreman ona daukat garai hartako mutiko txiki eta bihurri harekin; ez dakit berak gogoratuko ote duen pasadizo hura, nik ez diot inoiz aipatu, baina argi dagoena da, ekintza hura egin zuenean irudituko zitzaiola zerbait on eta handi egiten ari zela, gainera, ni ez bainintzen Lekunberrikoa, baizik eta ondoko herri batekoa, eta, horrela, beharbada, eginen zuen konbentzimendu eta amorru handiagorekin. Bera gustura geldituko zen, segur aski, baina, ni, zeharo harrituta, ordea, eta inoren lotsa sentituko nukeen, noski, adin handiagoa izan banu.

Xanti Begiristain Madotz.



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

## PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Urtarrilaren 9an, Euskal Herri osoan Presoen eskubi-deen alde pauso garrantzitsu bat eman genuen, sensibilizazio desberdinek bat eginez. Gurean Atalluko frontoian bildu ginen, bertan, herri kirolak, harri-jasotzailea, abeslaria,.. Gazte hauei guztiei eskertzen diegu ekitaldia ongi atera zedin egindako lan guztia. Elurra mara-mara, baina Atalluko frontoia berotasunez bete genuen, esker mila ere gerturatu zineten guztioi. Gure berotasuna Espainian zehar barreituta dauden ziega ilun guztietara iritsiko zelakoan gaude, ziega hotzari aurre egiteko indarra emango dien esperantzarekin. Bertan bildu genuen dirua SARE taldera joan da, urte zail honetan diru-sarrerak murriztu diren honetan, talde bezala irauteko ekarpen ezinbestekoa.

Estatu Espainiarraren aldetik, pauso txikiak gauzaten ari diren arren, Garikoitz Etxeberria Sevillan gatibu dute eta urte askotan dispersatua eta isolamenduan izan dute. Aurreko hilabetean pasatu zuten modulu arruntera, eta 12 urteren ondoren, zerua ikusi ahal izan du. Isolamenduko zigor zeldak, gehienez 15 egun igarotzeko sortu ziren, baina euskal presoek urteak egin dituzte bertan. Garikoitzek zigorraren 3/4ak beteak ditu, berez beraien legea eskuan hartuta, kalean egon zitekeen. Hau horrela da, bai, kalean egon behar luke. Izugarria da.

Aitor Agirrebarrenak, berriz, urte mordo eman ditu Puerto III kartzelan, Cádizen, 1.200 kilometrora. Orain destinoa Asturiasko Villabona eman diote, egun batean joan-etorria egin ahal izango dugu, aldea izugarria da, bai fisikoki eta baita ekonomikoki ere. Hala ere ez da nahikoa, bere gertuko hurbileneko kartzelak Martutene, Zaballa edo Iruñekoa direlako. Aitorren kasuan, Espainiako Justiziak Europako lege araudiko "acumulación de penas" deritzon irizpidean oinarrituta, ez dio onartzen, eta ondorioz, Frantziako kartzelan beteriko hamar urteko zigorra ez diote kontutan hartu. Sinestezina. Latza da presoek, familiak, lagunek pairatzen dugun eguneroko injustizia.

Honegatik, Sare ibiltariarekin bat egiten dugu eta honetan parte hartzera bultzatu nahi zaituztegu. "Izan

bidea" Sare abian jarri duen dinamika da; euskal preso eta iheslariaren egoerari irtenbidea emateko urratsak eman eta kilometroak egitea da asmoa. 3.127.326 km hain zuzen ere!, Euskal Herriak adina biztanle. Ekimenaren oinarrian elkarbizitzaren eta bakearen aldeko ibiltariaren sare erraldoia osatzeko erronka dago. Kilometroak zenbatzeko telefono mugikorrenzako aplikazioa sortu dute, oinez, bizikletan, korrikan,.. App-a deskargatu eta ekin bideari. Hileko azken ostiralekin jarraitzen dugu, negurako ordua aldatua, Beteluko aparkalekuan zazpi eta erdietan elkartzen ari gara. Azken preso eta iheslariak kalean izan arte, salaketa kalean presente egon dadin saiatuko gara, kontzentrazioak eginez bada ere. Animo guztiei eta gehien bat, kartzeletan gatibu dauden presoiei eta etxera ezin itzuliz dauden iheslariari. Bakerako bidea luzea da baina lortuko dugu, bake justu eta iraunkor bat.



Betelu-Araizko SARE Herriarraren partaideak.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7 - baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota** **STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com

**BIDEGOXO**



**JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com

# “Orduategia zabaldu eta zerbitzu berriak jarri ditugu martxan”

*Berrikuntza ugari izanen dira aurtien Plazaola Kirolgunean. Bestek beste, gimnasioan makina berriak jarriko dira, orduategia zabaldu eta zerbitzu berriak eskainiko dira. Amaia Landa (Plazaola Kirol Instalazioetako Kudeatzailea), Hodei Buldain (Arnasgunea eta Multikirola), Aitor Gartzaron (Gimnasioko monitorea), Olatz Iribarren (Arnasgunea) eta Irati Morenorekin (Soroslea eta Arnasgunea) izan gara.*

**Martxoan, COVID-19a dela eta kirol instalazioak itxi egin behar izan zenituzten, ezta?**

**Amaia:** Bai, gobernuak dena ixtea erabaki zuenean kirol instalazioak ere itxi egin ziren. Martxoaren 13an itxi genituen eta uztailearen 1ean ireki genituen berriro. Sauna izan ezik, gainerako instalazio guztiak ireki genituen. Eta protokoloa baldintza berrietara egokitzen joan gara.

**Momentu honetan zeintzuk dira koronabirusaren kontra hartzen diren neurriak?**

**Amaia:** Osasungintzatik aholkatzen digutena jarraitzen dugu. Garbitzaileen lana indartu egin da eta erabiltzaileek uki dezaketen hori guztia hiru aldiz desinfektatzen da produktu jakin batzuekin. Edukiera ere mugatuta dago eta gimnasioa erabiltzeko beharrezkoa da aurrez

*“Kirol instalazio askorekin alderatuta merkea da eta zerbitzu asko eskaintzen dira”*

ordua hartzea. Egun osoan zehar ahal den guztietan aireztatzen da. Eta bestalde, klimatizazio sistema berria jarri da.

**Koronabirusa dela eta egin da inbertsio hori?**

**Amaia:** Ez. Aurrekoa ez zen horren efizientea jada eta airea ez zuen behar bezain ongi garbitzen. Hezetasuna batzuetan gehiegizkoa izaten zen. Horregatik, aldatzeko proiektua egin geneukan, baina aurtien atera den diru-laguntza bat aprobetxatu dugu inbertsioa egiteko. Sistema berriari esker, aldageletako, spako eta igerilekuko gunean dagoen airea etengabe berritzen da eta horri esker, bizi dugun egoeran seguruagoa da gune horietan ahozapirik gabe ibiltzea.

**Gimnasioan ere berrikuntza batzuk eginen dituzue aurtien, ezta?**

**Amaia:** Bazkideen aldetik aspalditik jasotzen ari ginen eskaeretako bat zen hori. Zenbait makina zaharkituta daude eta berritzeko beharra ikusi da. Lekunberriko Udalak berrikuntza plan bat egiteko eskatu zidan eta behin-behineko plana azaroan aurkeztu eta gero, orain prozesu parte-hartzaile bat ireki da erabiltzaileen beharrak eta iritzia jasotzeko. Batez ere muskulazio makinak berritzea da asmoa, baina gainerakoa ere baloratuko da.

**Nola eginen duzue parte-hartze prozesu hori?**

**Amaia:** Bilera batean parte-hartzeko deialdia egin da, eta horrez gain,



Irati Moreno, Aitor Gartzaron, Hodei Buldain, Amaia Landa eta Olatz Iribarrenek Plazaola Kirolguneke berrikuntzen berri eman digute. Arg: Labrit.



edonork bere ekarpena egin nahiko balu zuzenean egin dezake harreraren edo gurekin harremanetan jarrita. Ikusi nahi dugu zein makina diren ezinbesteko aldatzea eta beste zein makina sumatzen duten faltan erabiltzaileek. Asmoa da urte honetako lehen hiruhilekoaren amaierarako berritzea.

### **Gimnasioa asko erabiltzen den espazio bat da, ezta?**

**Aitor:** Bai, jende asko etortzen da. Eta orain are gehiago. Koronabirusa dela eta ikastaroetarako erabili ohi genuen gela ezin dugu horretarako erabili edukiera dela eta. Ikastaroak pistan eskaintzen dira orain eta goiko gela gimnasioko zenbait makina jartzeko aprobetxatu dugu. Orain gimnasioan espazio gehiago dago eta askoz ere erosoagoa da jendearentzat.

### **Zeintzuk izaten dira gehien erabiltzen diren makinak?**

**Aitor:** Muskulazio gelan jende asko ibili ohi da, pektoralak egiteko makinekin, pisuekin... Eta korrika egiteko zintak ere asko erabiltzen dira. Zintak beste gelara pasa ditugu orain.

### **Eta zure lana zein izaten da, Aitor?**

**Aitor:** Makinekin sortzen zaizkien zalantzak argitu, entrenamendu planak prestatu... Aurten, zerbitzu berria eskainiko dugu alde horretatik. Gimnasioan launaka entrenatzeko aukera emanen dugu.

**Amaia:** Dagoeneko jende askok adierazi digu interesa zerbitzu horrekiko. Nahi izanez gero, Aitorrek makinak erabiltzen lagunduko dizu. Bada jendea ohituta ez dagoena eta gimnasia joan eta ez du jakiten nondik hasi. Zerbitzu honen bitartez entrenatzen ikasten duzu eta makinak ongi erabiltzen eta horiei izan diezaikegun beldurra uxatzen lagunduko dizu.



Gimnasioko muskulazio makinek arrakasta handia izan ohi dute. Arg: Labrit.

### **Eta horretarako ordutegi bat izanen da?**

**Amaia:** Astearte eta asteazkenetan, 16:00etan eta 17:00etan eskainiko da zerbitzu hori ordubeteko iraupe-narekin. Momentuz, horrela hasiko gara eta joanen gara ikusten. Gaur egun beharrezkoa denez gimnasioa erabiltzeko aurrez ordua hartzea, esan dezakezu monitorearekin nahi duzun edo ez. Eta monitorearekin gehienez lau pertsona arituko dira saio bakoitzeko.

**Aitor:** Bestalde, gimnasioko makinak berritzen ditugunean, formakuntza saio batzuk eskainiko ditugu erabiltzaileek makinak nola erabiltzen diren ikas dezaten, denok ongi erabil ditzagun eta norberak probetxu handiagoa atera diezaien.

### **Gimnasioaren ordutegia ere zabaldu egin duzue...**

**Amaia:** Bai, kirol instalazioen ohiko ordutegia goizeko 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara da, baina orain astelehenetik oste-

*Plazaola Kirolgunearekin harremanetan jartzeko:*  
[plazaolakirolgunea@gmail.com](mailto:plazaolakirolgunea@gmail.com)  
 948 507 377.

**“Arnasgunea, familiei arnas pixka bat emateko martxan jarritako zerbitzua da”**

gunera bitarte, goizeko 07:00etatik gaueko 21:00ak arte gimnasioa irekita egonen da bazkideentzat. Lau ordu gehiago egunean. Hori ere aspalditik eskatzen ziguten gauza bat zen. Noizbait probatu izan da instalazio osoa eguerdian zabalik mantentzea, baina horretarako soroslearen eta harrerako langilearen lanorduak ere zabaldu egin behar ziren eta ez zen errentagarria.

**Orain beste aukera baten alde egin duzue, ezta?**

**Amaia:** Bai. Goizeko 07:00etatik 09:00etara eta 14:00etatik 15:00etara bazkideek baino ezinen dute erabili gimnasioa. Euren bazkide txartelarekin sartuko dira. Beti egon ohi da instalazioko langileren bat, beraz alde horretan ez da aldake-

tarik izanen. Eta goizeko 09:00etan erabiltzaile guztientzako zabalduko da ohi bezala. Igerilekuaren kasuan erabaki dugu momentuz asteleheneran soroslea goizeko zazpietatik aurrera jartzea eta eguerdian ere irekita mantentzea. Momentuz dugu ea egingen dugu eta ikusiko dugu ea jendeak nola erantzuten duen.

**Hodei:** Egia esan ordutegi berri horretan, egunero dabil jendea. Goizean goiz eta eguerdian mugimendua nabaritzen da.

**Martxan jarritako beste zerbitzu bat Arnasgunearena da...**

**Amaia:** Bai. Gaur egun darماغun bizitza erritmoarekin denok korrika ibili ohi gara, ezin iritsiz. Batez ere haur txikiak ditugunontzako, zaila da tartea ateratzea erosketak egiteko, kirola egiteko edo zeure buruari eskaintzeko. Hori horrela, familiei arnas pixka bat emateko martxan jarritako zerbitzua da. Asteleheneratik ostiralera bitarte, 16:30etik 18:30era, kiroldegian zeure haurra uzteko zerbitzua eskainiko da. Haurrak monitore batekin egonen dira, jostailuekin jolasten, margolanak edo eskulanak egiten edota kirol ezberdinak egiten, adinaren eta haurren zaletasunen arabera. Bazkide direnentzat eta ez direnentzat eskainiko da. Beste kirolgune askotan eskaintzen den zerbitzua da eta oso interesgarria dela iruditzen zaigu.

**Eta zein adin tarteko haurrak uzten ahalko dira?**

**Amaia:** Ez da zehaztuko adina, baina

Koronabirusaren aurkako babes neurri zorrotzak hartu dituzte kirol instalazioetan. Arg: Labrit.



**IORTIA** EL INCA ESTETIKO HORTZ KLUBA

Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es

orokorrean gurasoek baloratu behar ko dute.

### **Hodei, Irati eta Olatz, zuek arituko zarete monitore lanetan zerbitzu horretan...**

**Hodei:** Bai. Asmoa da beheko solairuko gela bat erabiltzea, tatamia du eta oso eroso izanen da haur txikiarentzat. Zenbait egunetan ume handiagoak etortzen badira pista erabiltzeko aukera ere izanen dugu. Momentuan etortzen diren umeen adinaren arabera.

**Amaia:** Momentuz, zazpi haur hartuko dira gehienez ere aldi berean.

### **Eta zein prezio izanen du orduak?**

**Amaia:** Bazkideentzako 3 eurokoa izanen da ordua eta bazkide ez direnentzako berriz 4,50 euro.

### **Oro har zerbitzu asko eskaintzen dira Plazaola Kirolgunean, ezta?**

**Amaia:** Bai eta nik uste balorean jarri behar dugula hemen, bertatik bertara, dugun instalazioa. Beste kirol instalazio askorekin alderatuta merkea da eta zerbitzu asko eskaintzen dira. Horretaz kanpoko jende asko ohartu da.

**Hodei:** Bai, aurten padel pistetara altsasuar asko etortzen ari dira eta baita Leitzatik ere. Egutero beteta dago! Eta gimnasia ere Ultzamatik eta beste hainbat lekutatik etortzen dira.

**Amaia:** Gimnasioa, bi padel pista, spa, squash pistak, kiroldegia, frontoia, trinketea, futbol zelaia, igerilekua... Denetarik daukagu! Gainera, Iruñeko kirol instalazioekin alderatuta askoz ere lasaiagoa eta segurua da. Igerilekuan oso gutxitan partekatu behar izaten duzu kalea. Eta gimnasioan ere normalean ez duzu txanda luzeen zain egon beharrik makina bat edo beste erabiltzeko.

**Hodei:** Hemen gozamen hutsa da!

### **Ikastaroetan berrikuntzarik baduzue?**

**Amaia:** Ikastaroetan egin zen azken berrikuntza *multitraining*-a izan zen. Helduentzako ikastaro ezberdinak egiteko aukera eskaintzea. Hau da, lehen zumba, spinning edo bestelako ikastaroak banaka eskain-



tzen ziren eta orain berriz pack hori hartuz gero, nahi duzun saioetara joan zaitezke. Egia da batzuk euren gustukoa den modalitate horretara baino ez direla joaten, baina kirola gustuko duten beste askok edo ordutegi finko bat bete ezin dutenek etekina ateratzen diote. Bestalde, aurten ikastaroak online ere eskaintzen hasi gara. Batzuei erosoagoa egiten zaie etxean bertan egitea eta orain Koronabirusa dela eta konfinatuta egon behar duten horiek ez dituzten euren saioak galtzen.

### **Koronabirusak ekarri zuen itxieraren ondotik, kosta egin al zaio jendeari berriro kirolgunera etortzea?**

**Hodei:** Ez. Jende asko etortzen ari da orain. Uste dut, orain gauza asko bertan behera gelditu direnez, jendea animatu egiten dela hona etortzera.

**Amaia:** Eta gainera jendeak ikusten du segurua dela hona etortzea. Gimnasioan berez 35 laguneko edukiera mantendu beharrik genuke, baina guk 20era murriztea erabaki genuen eta beti aireztatuta egoten da. Aldageletako eserleku, armairu edota dutxetan ere espazioak mugatuta daude. Beraz oso segurua da eta jendea lasai etortzen da.

Bi gelatan banatu dituzte gimnasioko makinak. Arg: Labrit.

# Ombuaren itzala: auzolanaren indarraren adibide

Patxi Bisquert

*Orain dela zenbait urte Patxi Bisquert aktoreak Eguzki Art Zinema ekoiztetxea sortu zuen eta orain auzolanean oinarritutako proiektu batekin dabil lanean, "Ombuaren itzala" filmarekin. Aktore zizurkildarra gurean bizi izan zen zenbait urtez, Astitzen, eta joan den hilean bisitan etorri eta zenbait hitzaldi eskaini zituen eskualdean bere proiektu honen berri emateko asmoarekin.*



Patxi Bisquertek hainbat kolaboratzaileekin batera joan den urriaren 8an aurkeztu zuen proiektua jendartean eta geroztik herriz herri dabil aurkezpenak egiten. Pello Mari Otaño bertolari zizurkildarraren bizitza eta berak egindako lana Euskal Herrian nahiz Argentinan ezagutzera ematea helburu duen filma ekoiztu nahi dute.

Patxi: "Duela hamar urte hasi nintzen han eta hemen ate joka filmaren aurrera eramateko, baina ez nuen lortu inork bere gain hartzea eta azkenean nik neuk daukadan ekoiztetxearen egiteko pausoa eman dut. Auzolanean finantzaturako filma izanen da eta bi diru iturri nagusi izanen ditu. Alde batetik Euskal Herriko populazioaren %1ek, hau da 30.000 lagunek aurrez sarrera erostea lortu nahi dugu eta bestetik Kultur Mezenazgoaren Legearen bitartez edozein erakundek eta enpresak, handi nahiz txiki, bere ekarpena egin dezake eta horren bitartez onura fiskalak izanen ditu. Guztira 750.000 euroko aurrekontua duen ekoizpena da. Ohiko euskal filmen aurrekontuekin alderatuta nahiko azpitik dagoena, baina kopuru horrekin egin dezakegula uste dugu".

Ez da ez erronka makala! Baina dagoeneko, jendartean ezagun egiten ari da. Batez ere Pello Mari Otañok 1890etik hil arte, 1910. urtera arte bizitakoak kontatuko ditu filmak. Bere koplek bitartez Euskal Herriko garai hura aztertuko du,





Arg: Xabier Vélez

berpizkunde garai garrantzitsua izan baitzen. Otaño ahanzturatik atera eta filma nolabait gaur egungo belaualdientzako tresna bilakatzea nahiko lukete. Hori dela eta, eskola, ikastola, Guraso Elkarte, bertso eskola eta hainbat elkarterekin buru-belari dabilta lanean.

Patxi: *“Oso pertsona berezia zen, garai hartan nabarmendu egin zena. Orduko bertsolariak baino jantziagoa zen. Bere hizkuntza ere modernoagoa zen, bultzada eman zion euskarari eta gaur egungo gazteek ezagutu egin behar dute”.*

“Ombuaren itzala” jarri diote izena filmari. Argentinako zuhaixka baten izena darama. Otañok berak bere koplen bitartez aipatzen du ombuak bere Zizurkilgo bere baserriaren atarira irudimenaren bitartez bidaiatzen laguntzen ziola. Simbolismo hori erabili dute filmean ere.

Ekainean ekingo diote grabaketa lanei Argentinan. Patxi bera jarriko da Pelloren paperean eta Itziar Atienza edo Iñaki Beraetxe bezalako aktoreak izanen ditu inguruan.

2022ko udan, estreinatzea aurreikusten dute, Otañoren heriotzaren 111. urteurrenarekin batera. Horretarako ordea, bide gogorra dute aurretik, herrigintzaren indarrarekin batera lortuko denaren konfiantzarekin. Euskal Herrian ez ezik Argentinako euskal komunitatean ere proiektua ezagutzera emanen dute ekainean.

Patxi: *“Hasi besterik ez gara egin eta epea nahiko luzea dirudi, baina ez dezagun azken momenturako utzi, diru sarreren arabera grabatuko baitugu filma. Zenbat eta azkarren lortzea da gehien komeni zaiguna denoi”.*

Otsailaren 13, eguerdiko 12:00etan Araizko udaletxean proiektua aurkeztuko dute. Baina dagoeneko, filmaren ekoizpena bultzatzeko zure ekarpena egin dezakezu sarrera erosiz Mitxausenea Kultur-Etxean, Araizko udaletxean edota [www.pellomariotañoauzolana.eus](http://www.pellomariotañoauzolana.eus) atarian.

Sarrera erosiz gero, filma zinema aretoetan estreinatu aurretik ikusteko aukera izanen duzu herriz auzolan-kideentzako eginen diren proiektioetan.

**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)

**OKM**

**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubietta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555

Hasi partekatzen kotxea zure  
eremuko pertsonekin  
**Deskargatu Kudea >Go!**  
app-dendetatik, bete zure datu  
pertsonalak eta hautatu  
Lekunberri-Larraun eremua

\*Adibidea



### ▶ KUDEA>GO!: AUTOA PARTEKATZEA APLIKAZIOA

Mendialdeko hainbat udalen babesarekin, tartean Lekunberri eta Larraungoarekin, sortutako aplikazioa da Kudea>go!. Autoa inguruko pertsonekin partekatzea errazten duen tresna da. Bidaia bera egin behar duten herritarrak harremanetan jarri eta mugikortasun jasangarria sustatzea du helburu. Bi hizkuntzatan erabil daiteke aplikazioa, euskaraz nahiz gazteleraz eta dagoeneko eskuragarri dago App Store eta Google Play-n.



### ▶ HASI DIRA LARRAUNGO UDALETXE- KO BIGARREN SOLAIRUKO EGOKITZE LANAK

Iaz Larraungo Udalak aurrera eramandako prozesu parte-hartzaile baten bitartez, larraundarrek dituzten espazio beharrak aztertu eta gero erabilera anitzeko espazio bat egokituko da Gabari Etxeko azken solairuan. Ilbeltzean hasi ziren egokitze lanak eta abuztura-ko amaituta egotea aurreikusten da. Aurrera begira, lan talde bat osatuko da.

### MALKORREAN GOTORLEKU- RIK EGON ZEN EGIAZTATZEKO IKERKETA ABIATU DA

Lekunberriko Udalak Ondare Kultur Taldearekin batera Aranzadi Zientzia Elkarteari Lekunberriko Malkorrean ikerketa arkeologikoa egin dezala eskatu diote. Dokumentu historikoetan jasotako informazioaren arabera, bertan defentsarako gotorlekua izan zena-  
ren hipotesia dute esku artean.





### ESKOLARTEKOAK ESKARMENTUDUN BERTSOLARIEKIN ARITUKO DIRA

Bertsozale Elkartek ekainean bertan behera gelditu zen Eskolartekoa berreskuratu du Eskolatik Plazara ekimenarekin. Koronabirusaren aurkako neurriek galarazi zuten Euskal Herriko Eskolartekoa jokatzeari. Hori dela eta, bertan aritu ezin izan zirenei gaur egun plazaz plaza aritzen diren bertsolariekin batera aritzeko aukera luzatu diete. Otsailaren 5ean Iruñean Eukene Los Aires, Aitor Ugarte, Ekhiñe Zapiain eta Bittori Elizalde, Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariekin arituko dira, arratsaldeko 18:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.



### EÑAUT ELORRIETA ETA ZEA MAYSEKO KIDEEN KONZERTUA ESKAINI DU GOGOR TALDEAK

2020ko etxealdian zehar sortutako Gogor Langileon Defentsa Antolatuak hainbat ekimen jarri ditu martxan azken hilabete hauetan. Gizarte justua eraikitzea du helburua taldeak. Euren ekimenez sortu zen Elikagai Bankua ezinbesteko laguntza izan da familia askorentzat. Gaur egun Sakana zein Larraun aldeko 77 pertsonak jasotzen dute elikagai sorta banku horri esker. Eta beste 33 pertsona daude itxaron zerrendan. Ilbeltzean Eñaut Elorrieta eta Zea Mayseko Aiora eta Pitiren kontzertua eskaini zuten Lekunberriko Kiroldegian eta bertan hiru saski zozketatu zituzten.

### UITZIKO MAINEA LEZEA AZTERGAI

Otxola espeleologia taldeko kideek 1996an egindako aurkikuntza eza-gun egin da orain, EHUko Unibertsitateko adituek eta Aranzadik martxan jarri duen ikerlan bat dela eta. Bertan aurkitutako fosiletatik abiatuta da ikerlana. Glaziazio garaiko animalien hezurak topatu baitziren bertan, zehazki errinozero iletsuarena eta mamutarena.



# Zuei

Arantxari.

Sukaldeko beroa, zartaginean saltsa eta ogian gozamina. Azken logelako armairuko lehen tiraderan daude urdin koloreko harribitxi gozoak.

Balaztarik gabeko lurrikara. Jarraitu betiko gure gogo eta barre(n)ak astintzen mesedez.

Akordeoi joleari.

Hiru eta erdiak pasatxo iritsi naiz beste behin ere. Autobusetik jaitsi naiz eta bideari ekin diot. Zuhaitzen sustraiek eragindako gorabeherak, gaur ere ez dira gizaki simple baten begiek ikusteko adina mugitu.

Hirugarren arbola begi bistan izaterako, hasi dira belarriak zorutzen. Hortxe nire eserlekua. Gaur ere itzalean eseri naiz liburua esku artean. Liburuz aldatu behar dut biharko, esan diot nire buruari. Bestela konturatu egingo da.

Ez dut hitz bakarra ere irakurri. Baina egunak daramatzat bere atzean gordea, akordeoi jolearen melodiak sorginduta. Ez du inoiz jakingo autobusa ordubete lehenago hartzen dudala egunero, ez du inoiz jakingo zenbat maite dudan.

Nik ere ez nuen jakin inoiz melodia haren izenik.

Mattini.

Begiak itxi, oroitzapena margotzeko arkatzez ariman marraztu zuen une goxoa, txikitako jolaslekuaren ondoan.

Sei. Sei ziren une hura estu lotuko zuten hariak. Beldurrak, lotsak, isiltasunak... Ihes egin zuten

segundo batez. Hilezkor. Buruan zenbait ile ale zurretzen hasiak zituen dagoeneko, horietako bakoitza irri bihurtzen bazekien ordea.

Arima gaztea zuen, sendoa bihotza eta egiazkoa ekintza. Suntsiezina bizi grina.

Olentzerori.

Zure unea iritsi da, azken arnas lausoa hartu duzu sakon, bizitzaren lurrin guztiak batera barneratu dituzu beste behin, txorien azken kantuak gero eta urrunago aditzen dira, baina inoiz baina ozenago. Bihotz taupada amaigabea, amaiera



izango den begirada horren aurretik. Baina lasai ekin bidaiari, bete ditut nire txoko eta bazterrak, sugarra bizirik gordeko duten ikatz kondarrez.

Joxeri.

Herriko harri zaharrena zen hartan eserita zegoen goiz bat gehiagoz, haizearekin solasean, zirudienez gaurkoan istorioa Ameriketako haizeek zekarkiten. Bukatu zen guda, hastekoa zen kaosa.

Eskerrak eman zizkion berriro, egunero legez bere historia kontatu zion haizeari, eta aske utzi zuen ondoren. Bere istorioa nonbait kontatuko zuen haizeak agian, norbaiten oroitzapen eta otoitzetan sartuko zen ustekabea.

Baina eta... egun barea bazetorren hurrena?

Eserita jarraitu zuen, sortzeko harri barean higadura.

Izar uxuari.

Ihes egiten zenuen gauero, urrutira ihes, begi bistatik alde, desirak matxuratzen zenizkidan gauero.

Mila esker.

Libre egiten ninduzun gauero, izateko libre, hegoekin libre, desira berriak emanez gauero.

Zuri.

Askatasunaren lokarriak lotu gaitzala luzaro.

Niri.

Karrakela, ez ahaztu inoiz.



leuze

Leire Aranburu



# Bikote harreman hautsiak

Bikote harremana plazer eta ongi sentitzearen iturria ohi den bezala, une batzuetan min eta egon-ezaren jatorria izan daiteke. Azken hauek luze iraunez gero, bikote harremana bukatu egin daiteke. Gehienetan, amaiera mingarria izaten da, nahiz eta denborarekin liberazio bezala sentitzera iritsi gaitzkeen. Harremana bukatzeko adostasunik ez dagoenean eta batek soilik erabakitzen duenean harremana etetea, geratzen denerako are mingarriago izan daiteke. Orduan iristen dira abandonatze, bakardade, haserre eta tristura bezalako sentimendu eta emozioak.

Nik neuk bizi izan ditut egoera hauek. Bizi izan ditut bi aldeetatik. Nik eman dut urratsa harremanetik irteteko bestea ados egon gabe eta aurkakoa ere, nik nahi gabe besteak erabaki du harremana uztea. Biak egin zaizkit mingarri. Bizi izan dudana azkena, hain zuzen ere, horrelakoa izan da. Itxuraz, biok ongi, gustura, konplizitate handiarekin bizitzen ari ginen harremana eta halako batean, beste aldeak erabaki zuen harremana haustea, modu bortitz eta oso mingarri batean, gainera. Harridura, sinesteko zaila, ulertezina. Shock batean geratu nintzen, are gehiago, deskubritzean bera aspaldi ari zela bukaera prestatzen bere buruan. Etorri ziren, orduan, minak, min handiak, oso handiak. Oroitzapenetan atzera egin nuen ea pasatu zena gerta zitekeenaren adierazlerik ote zegoen lehenagotik ikusteko. Bai eta ez. Saiatzen nintzen konprenitzen eta kostata ulertzen nuen zerbait



baina ez guztia.

Horrelako egoerak askok bizi izan ditugu behin, bitan edo gehiagotan geure bizitzetan nerabe garaian bikote harremanak hasten ditugunetik. Beraz, horren ohikoa bada, jakin beharko genuke zer egin horrelakorik bizitzea suertatzen zai-gunean baina, inork ez digu lezioa aurretik irakatsi. Zer izan da horrelakoetan niretzat lagungarri?

Lehenengoz eta behin nire baitan ez ixtea, alegia, konfiantza handiko pertsona batekin edo gehiagorekin konpartitzea. Hitz egin, esan, azaldu nire ustez zer gertatu den baina, are garrantzitsuago, nola sentitzen naizen kontatu. Errudun sentitzen bagara, esan; haserre bagaude, esan; ez badugu uler-

tzen, esan. Hitzak indar handia du, barneko minak liberatzeko ere. Horretarako pazientzia handiko gertuko lagunak behar ditugu. Gutxienez hau, eta inoiz ez saiatu minak bakardadean eramaten, barruan geratzen baitira eta barruan geratzen denak, lehenago edo beranduago, kaltea sortzen digu. Emozioei eman behar zaie bidea. Tristura handiari malkoen bitartez irteera eman, ahal bada. Niri asko kostatzen zitzaidan, baina azken honetan, espero ez nuenean malkoak etorri zitzaidan eta luze eta sakon egin nuen hainbatetan negar.

Utzikerian erortzeko tentazioa ere etor daiteke. Deprimituak sentitzen gara eta uzten diogu geure burua ongi zaintzeari.

Niri eta nik ezagutzen ditudan hainbati oso lagungarri suertatu zaigu, bestalde, naturarekin harremana izatea. Mendian edo basoan ordu batzuk ibiltzea, ahal den guztietan. Bertan bakea sentitu, birrikak bete, gorputza mugitu, eguzkiak gozatu... Etxean, zulo ilunean ezkutatzeko, ez du konponbiderik ekartzen. Are gutxiago, ihesbidea bilatzea, edozein modutakoa izan da ere.

Bikote harreman baten bukaera oso mingarria izan daitekeela kontuan hartuta, laguntza profesionala oso komenigarria da, zalantzarik gabe. Ni neu terapeuta izanda ere, beste terapeuta baten laguntza eskatu izan ohi dut eta ikaragarri eskertu izan dut.



# Ekainerako araztar eta beteluar guztiek konposta egitea helburu

*Araxes Garaiko Zabor Mankomunitateak aurrerapauso handia emanen du datozen hilabeteetan. Zabor edukiontzien antolaketa aldatu egingen da eta ekainerako herritar guztiek hondakin organiko guztiarekin konposta egitea aurreikusten da.*

18

Martxoan herri guztietan dauden zabor edukiontzia berrantolatu egingen dira. Araxes Garaiko Zabor Mankomunitateak, Udal eta Kontzejuekin batera, egokienak diren zenbait leku zehaztuko dituzte herriko

zabor edukiontzia jartzeko. Hemendik aurrera ez da edukiontzi berde solterik egonen. Zehazten diren leku horietan edukiontzi guztiak egonen dira: horia, urdina, berdea eta beirarena.

Joseba Sanchez (Araxes Mankomunitateko Teknikaria): *“Birziklatzea eta bereziketa egokia bultzatzea da helburua. Gaur egun zenbait kokaleku ez dira egokiak ez legeak ezarritako irizpideen arabera eta ezta zabor bilketan aritzen diren langileen prebentzio neurriak betetzeko ere. Badira, esaterako baserri atarian dauden edukiontzi solteak eta bertara iristeko kamioiek zailtasunak izaten dituzte”. Gainera edukiontzi berdea etxe aurrean edukitzeak hondakin mota guztiak bertara botatzea eragiten du herritar askorengan.*

Horrez gain, uda aldera, bi garbigune txiki jartzeko asmoa dago Araitz eta Betelun. Nafarroako Zabor Partzuergoak bere gain hartuko duen inbertsioa izanen da eta bertan ohiko edukiontzietan bota ezin diren hondakin horiek jasoko dira. Joseba: *“Araxes Mankomunitatea Nafarroako mankomunitateen birziklapen rankingean ez dago bereziki lehen postuetan, eta hori hobetu egin behar dugu”.*

Mendialdea Mankomunitatean aspaldi hartutako bideari jarraituz, epe laburrean hartuko den beste neurri bat konpostarena izanen da. 2010ean banatu ziren lehen konpostagailu indibidualak bertan. 103 daude banatuta eta beste ehun banatuko dira hilabete hauetan. Gainera horiez gain, 300 konpostagailu erosteko diru-laguntza ere jaso du Mankomunitateak.

Herritar batzuek urte asko daromatate jada konposta egiten eta beste batzuk pixkanaka ohitzen ari dira.



Arriben, zabor edukiontzien ondoan jarri dute auzo-konpostagunea. Arg: Labrit.



*Jokin Lopetegi (Betelu)*

## “Beteta egon edo ez urtero ateratzen dut baratzerako ongarria”

### **Zenbat urte daramatzazu konpostagailua egiten?**

Banatzen hasi zirenean hartu nuen konpostagailua. Izango dira zortzi edo hamar urte.

### **Umetan baserrian konposta egiteko beharrik ez zenuten izaten, ezta?**

Ez, baserrian organikoa txerri-pazkarako izaten zen. Eta animalientzako balio ez zuena ongarriarekin nahasten zen.

### **Zu hasieratik animatu zinen beraz etxean konposta egitera...**

Bai. Beteluko elkartearen bilera bat egin zuten eta ongi iruditu zitzaidan. Lehendik ere bereizten genuen ahal zen guztia. Baina organikoa bere poltsan joaten zen edukiontzi berdera. Eta orain berriz, organikoa konpostagailura botatzen dugu. Beti sortzen da zerbait edukiontzi berdera doana baina oso gutxi.

### **Eta zaila izan zen konpostagailua erabiltzera ohitzea?**

Ez, duen lotura bakarra da egunero joan beharra duzula organikoa bertan botatzera. Baina antzarei jana



Jokin Lopetegin hamar urte inguru daramatza konposta egiten. Arg: Labrit.

ematera joan bidenabar egin ohi dut. Ni organikoa botatzen joaten naiz egunero eta hamabost egunetik behin edo nahasi egiten dut. Hasieran gomendatzen zuten material lehorra botatzeko tarteka eta nik hasieran zerrautsa botatzen nion baina orain ez diot ezer botatzen eta berdin-berdin egiten da. Egia da udaberri aldera moztutako belarra botatzen diodala eta horrek lehortu egiten du. Baina dena ez da sartzen, horregatik beste bat izaten dut betetzen zaidanean txandaka ibiltzeko.

### **Eta zenbatetik behin husten dituzu?**

Urtero, beteta egon edo ez urtero ateratzen dut. Baratzea daukat eta baratzerako erabiltzen dut ongarri gisa.

### **Arazorik izan duzue usainarekin edo arratoiekin...?**

Ez, ez inoiz ez! Moskito txiki batzuk ateratzen dira, baina barruan, bertatik ez dira ateratzen. Oso erraza da eta ez du arazorik ematen.

Mari Tere Mugerza (Arribe)

## “Konpostagailuak ez du arazorik ematen”



Mari Tere Mugerzak etxean nahiz dendan egiten du konposta. Arg.: Labrit.

20

*"Hondakin asko pilatzen zela ikusten nuen eta eskaera egin nuen"*

### **Zuk Jokinek baino denbora gutxiago daramazu konposta egiten Mari Tere...**

Bai, ni hemen, dendan orain dela urte eta erdi hasi nintzen. Hemen hondakin organiko asko sortzen da, beti usteltzen da barazkiren bat edo frutaren bat. Hondakin asko pilatzen zela ikusten nuen eta eskaera egin nuen eta nik eta dendaren gainean bizi den Nieves Lopetegi eta biok egiten dugu konpostagailu berean.

### **Zein da dendan gehien sortzen den hondakina?**

Plastikoa eta kartoia, bolumenean gehiago izaten da kartoia. Gogoan dut plastikoa botatzeko edukiontzia jarri zutenean alde handia izan zela. Kartoia erretzeko edo erabiltzen zen, baina plastiko guztia edukiontzi berdera joaten zen, organikoarekin batera. Orain pentsaezina iruditzen zaigu baina ez da horrenbeste urte denok hori egiten gurela!

### **Eta zer moduz moldatzen zara konpostagailuarekin?**

Ongi. Kutxa batera botatzen joaten naiz eta bete ahala dendaren atzealdean jarritako konpostagailura botatzen dut eta tarteka nahastu. Batzuetan zerrautsa edo hostoak edo material lehor pixka bat ere botatzen

dugu. Nieves ni baino gehiago arduratzen da horretaz, oso zorrotza da horretan.

### **Eta etxean ere egiten duzue, ezta?**

Etxean denbora gutxiago daramagu konposta egiten.

### **Arazorik eman dizue?**

Ez, usainik ez du botatzen. Uda aldean, tapa irekitzerakoan moskitoak ikusten dira, baina ziur aski behar bezala ez egiteagatik izanen da. Hala ere mahai gainean ohartu gabe frutaren bat usteltzen denean ere berehala ageri dira. Hori normala da eta tarteka nahastu eta material lehorra botatzero ez da arazorik izaten. Eta niri askoz ere garbiagoa iruditzen zait bertara botatzea edukiontzira baino.

### **Auzo-konpostagailuak**

Konpostagailu indibidualak dituzten gehienak pozik daude, baina badira ezinezkoa dutenak halakorik etxe ondoan jartzea, pisuan bizi direlako, lekuri ez dutelako edota asteburuetan bakarri etortzen direlako. Horientzako auzo-konpostagailuak egokiagoak dira. Araitz eta Betelun bost auzo-konpostagune jarri ditu Mankomunitateak: Arriben, Atallun, Intzan eta bi gune Betelun. Eta datozen hilabeteetan falta diren beste hiru herrietan bana jarriko dira, Betelun beste bi gune izanen dira eta Arribe eta Atallun aztertzeke dago besterik jarriko ote duten.

Joseba: *"Asmoa da datorren urterako organiko guztia herrietan bertan kudeatzea. Orain borondatezkoa dena, 2023an derrigorrezkoa izanen da. Baina hasi beharra dugu gure ohiturak aldatzen. Datozen hilabeteetan, bertako pertsona bat ere kontratatuko dugu gune horiek kudeatzeko".*

Larraunen kasuan, pixka bat aurre-ratuago daude konposta egitearekin. Dagoeneko Larraungo zenbait herri lortu dute herri osoa konposta egiten jartzea. Errazkin da horren adibide.

# “Orain ohartzen gara konpostagarria zen zenbat zabor botatzen genuen edukiontzira”

## **laz jarri zenuten auzo-konpostagailua Errazkinen...**

Bai. Orain arte Mendialdea Mankomunitateak konpostagailu indibidualak eskaintzen zituen, nahi zuenak bere etxean edo baratzean jartzeko, baina askok ez dugu aukera hori. Hau apirilean jarri zen, etxealdian ginela eta oso ongi. Lau konpostagailu daude eta lehena berehala bete zen. Jen-deak erabiltzen du!

## **Zuek arduratzen al zarete behar bezala mantentzeaz?**

Alanbre moduko bat izaten da ondoan eta organikoa botatzen dugun bakoitzean horrekin nahasten dugu. Tarteka zerrautsa bota eta kitto! Norbera arduratzen da berea botatzerakoan behar bezala egiteaz. Eta batzuetan Mankomunitateko langile bat etortzen da ikuskatzera ea behar bezala nahasita dagoen edo zerrautsa falta den etab. Hark esaten du ongi ari garela!

## **Eta etxean aldaketa handia ekarri al du konposta egin beharra?**

Beste kubo bat jarri beharra. Baina ez du bestelako lanik suposatzen. Ia egunero ateratzen dugu eta orain ohartzen gara konpostagarria zen zenbat zabor botatzen genuen edukiontzira. Orain sortzen den errefusa oso gutxi da. Gehien sortzen dena organikoa eta plastikoa da.

## **Bada konpostagailura arraina edo haragia botatzen ez duenik...**

Nik dena botatzen dut, baita oskolak ere. Teknikariek diote organikoa den guztia bota daitekeela akaso oskolei gehiago kostako zaie deskonposatzea baina azkenean konpost bihurtzen da hori ere. Nik hasieran papezko muxukoak ez nituen botatzen, baina berez, hori ere bota daiteke.



Iñigo Orejak konposta egiten hasi ahal izan du Errazkinen jarritako auzo-konpostagailuari esker. Arg: Labrit.

Araitz-Betelun, dagoeneko jarrita dauden auzo-konpostagune horiek otsailaren erdialdera jarriko dira martxan eta horretarako bilerak eginen dituzte herritarrekin, nola erabili behar diren azaltzeko:

- Betelun, otsailak 15, 17:30ean eta 18:30ean.
- Intza, otsailak 16, 17:30ean.
- Arribe, otsailak 16, 18:30ean.
- Atallu, otsailak 16, 19:30ean.

Auzo-konpostagailua erabili edota konpostagailu indibiduala eskuratu nahi izanez gero, Araxes Garaiko Zabor Mankomunitatera deitu baino ez duzu egin beharko. Izen eman eta gero, beharrezko materiala eta gidaliburua jasotzeaz gainera, %20ko beherapena izanen duzu zabor zergan.

*“Orain sortzen den errefusa oso gutxi da”*



## Aizkora eta arpana txapelketak jokatu dira Lekunberrin

Joan den ilbeltzaren 17an, Nafarroako bigarren mailako aizkorako txapelketa eta arpana mistoko txapelketa jokatu ziren Lekunberrin. Aizkora txapelketako finalean Julen Olano leitzarra, Asier Pellejero aresoarra eta Beintza Labaiengo Jesus Etxeberria eta Jon Telletxea aritu ziren.

Bi kanaerdiko, 60 ontzako bi enbor eta oinbiko bat mozten lehena Julen Olano izan zen, 17 minutu eta 24 segundotan amaitu zuen lana. Bere atzetik sailkatu ziren, Pellejero Telletxea eta Etxeberria.

Bestetik Nafarroako arpana txapelketa mistoa ere jokatu zen. Ultzamako Ainhoa Iraizozek eta Josetxo Barberenak jantzi zuten txapela. Eta bigarren eta hirugarren postuan gelditu ziren Daniel Saldias eta Irune Biurrun eta Olatz Altuna eta Josu Elizalde.

## Sagardotegiek ezin izanen dute ireki

Covid-19aren hirugarren olatuak debekatuak eta mugak ekarri ditu berriro ere. Urtarrilaren erdialdera ziren irekitzekoak gure eskualdeko sagardotegiak. Iaz denboraldiaren erdian harrapatu zituen pandemiak eta aurten ezin izan dute aterik ireki. Ostalaritzak ezin du zerbitzua barruan eskaini Nafarroako Gobernuak hartutako neurrien arabera eta horrek zuzenean eragiten die sagardotegiei.



## Etxepare Sariketan lanak aurkezteko epea ireki da

Maiatzaren 7ra arte izanen da Etxepare Sariketan haurrei zuzendutako album ilustratuak aurkezteko epea. Hauek izanen dira kontuan hartuko diren oinarriak:

- Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.

- Bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean parte hartu daiteke. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.

- Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 zm x 21zm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).

- Sari hau azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta arestian aipatutako baldintzak bete.

- Lehiaketan parte hartzen duten egileek albumaren maketa aurkeztu beharko dute albumean agertuko lirakeen testu zein ilustrazioekin. Maketa pdf formatuan bidali beharko dute, lan osoa fitxategi bakarrean, [info@etxeparesaria.eus](mailto:info@etxeparesaria.eus) helbidera.

- Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanak posta arrunt bidez bidaliz gero, lanarekin batera gutun-



azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizenaz izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen bio-bibliografikoa. Lanak e-posta bidez bidaltzen dituztenek egilearen /egileen datuak aparteko pdf batean bidali beharko dituzte [info@etxeparesaria.eus](mailto:info@etxeparesaria.eus) helbidera.

- Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa.

## ETBko 3. eta 4. kanalak ikusi ahal izateko eskaera

Lekunberriko Udalak Nafarroako Gobernari gure eskualdean ETB3 eta ETB4 kateak ikusi ahal izateko hartu beharreko neurriak hartu ditzala eskatu dio. Gure eskualdean ezinezkoa da esaterako, oso gertukoa sentitzen dugun haurrei zuzendutako Ene-Kantaken saioaz gozatzea.



**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Asteleheneretik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)

**aitzberri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
[aitzberri@hotmail.com](mailto:aitzberri@hotmail.com)

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

German Lasarte  
ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

# “Diseinu bera ez errepikatzen saiatzen naiz”

*Maria Urrestarazu donostiarrak 31 urte daramatza gurean. Betidanik izan du josteko zaletasuna, baina azken aldian geroz eta gehiago dira neurria egindako poltsak, txanoak eta arropa eskatzen dizkionena. Gaintzan, Arraztio baserrian, du bere txokoa.*

## Noiz hasi zinen josten?

Gazte-gaztetatik josi izan dut eta puntua ere egiten nuen. Niretzako jantziak egiten hasi nintzen. Eta hona bizitzera etorri ginenean, etxea apaintzeko gauza ezberdinak egiten hasi nintzen. Urte luzez ibili izan naiz hau eta bestea egiten. Jostun batekin ikasten ibili eta gero patrioiak egiten ikasteko kurtso batean eman nuen izena eta horrela pixkanaka pausoak ematen joan naiz.

## Baina afizio moduan, ezta?

Bai, neure arropa egin nahi nuelako hasi nintzen. Baina lagun batek eskari bat egin zidan, gero besteak, ondoren senideren batek... Araitzen ere jendeak zertan nenbilen galdetzen zidan eta baten batek eskariren bat egiten zidan... Pixkanaka hasi nintzen besteentzako gauzak egiten. Egia da, merkatuan badela hutsune bat eta zentzu horretan niri ongi datorkit hobetzen joateko eta aldi berean zerbitzu bat emateko.

## Orain Beteluko Aitzberri Zentroan zuk diseinatu eta ekoiztutako osagarriak erosteko aukera eskaintzen duzu...

Bai. Gaintzako ezagun batek animatu

*“Nire bezeroek topatzen ez dituzten gauzak egiten ditut, gauza pertsonalizatuagoak”*

ninduen eta joan den azaroan zenbait poltsa, nezaser, txano eta bestelako osagarriak uzten hasi nintzen eta pozik nago izan duen harrerarekin. Arropa ere egiten dut, baina horiek eskaripean.

## Ekoizle txikien lanak geroz eta gehiago baloratzen ditugula uste duzu? Modan jartzen ari da “slow fashion” delako kontzeptua...

Ez dakit zenbateraino ari den aldatzen kontsumitzeko era. Jendeak baloratu ohi duela ekoizle txikien lana, baina egia da egunerokoan tentazio asko izan ohi ditugula. Batzuei garesti iruditzen ohi zaie. Ohiko merkatuan denetik dago, badira oso ongi egindako poltsak edo arropak eta oso prezio onean gainera. Nire kasuan, saiatzen naiz bezeroek topatzen ez dituzten gauza horiek egiten, gauza pertsonalizatuagoak. Adibidez nire bezero onenak mugikortasun arazoak dauzka. Bere beharretara egokitutako poltsa bat egin nion eta geroztik beste hiru eskatu dizkit. Pertsona itsu bati ere bere bastoiak gordetzeko ez zituen gustuko poltsak topatzen eta pare bat egin nizkion. Eta jende asko dago merkatuan nahi duen hori ezin topatu dabilena. Badira esaterako oso gustuko duten poltsa hori zahartu edo hautsi eta gero niregana josten dutenak, eta nik hala beste bat egiten saiatzen naiz.

## Instagram kontua ere baduzu, Maria...

Bai, iaz egin nuen nire alabak animatuta, baina nire kasuan ahoz ahoko du arrakasta, bai Donostian edo Tolosaldean eta baita hemen ere.

Mariak egindako zenbait lanen adibide.  
Arg: Labrit.net





### **Bananbanan jarri diozu izena zure markari, zure lan filosofia adierazten du nolabait, ezta?**

Bai. Ezin lo hartuz nenbilen gau batean bururatu zitzaidan eta gustatu egin zitzaidan. Nik egiten dudana ekoizpen txikia da eta oso pertsonalizatua. Diseinu bera ez errepikatzen saiatzen naiz. Beti aldatzen ditut txikieria batzuk. Oihal ezberdinekin jolasten dut eta kreailera eta material onak erabiltzen saiatzen naiz produktuak iraun dezan. Batzuk inzialak jartzeko eskatzen didate etab. Nik josi egiten dut, beraz edozein proposamen jasotzeko prest nago, egiteko gai banaiz eginen dut!

### **Zein da arrakasta gehien duen produktua?**

Donostian txanoek arrakasta gutxi izaten dute eta hemen berriz ikaragarria da! Eta poltsetan ere alde handia nabaritzen dut, han estilo batekoak nahiago izaten dituzte eta hemen berriz bestelakoak. Harrigarria da alde!

### **Zure lana are gehiago ezagutzera ematea gustatuko litzazuke?**

Etorriko dena irekita nag, gustatzen zaidan gauza bat da eta pertsona gisa hazteko modu bat da niretzat. Garrantzitsua da gustatzen zaizun horretan aurrera egitea. Hala ere, proiektu txiki bat da eta hala izaten jarrai dezala nahiko nuke. Nik lan egiten dudan moduan lan egiten jarraitu nahi dut.

### **Eta nola egiten duzu lan?**

Lehenik ideia marrazten



dut, ondoren patroia prestatzen dut eta gero josten hasten naiz. Gehiena makinaz eta zenbait gauza eskuz. Oihalak pixkanaka erosten joaten naiz, gehiegi ez errepikatzeko.

### **Zure poltsetako bat nahiko banu, gutxi gorabehera zein preziotan eskura nezake?**

Tamainaren araberako prezioa jarri ohi diet. Motxilarik arruntenak 20 eurotan saltzen ditut. Tamaina ertaineko poltsak 45 eurotan eta handienak 50-60 artean ibili ohi dira. Eta txanoak berriz 35 eurotan.

**Eskaerak egiteko:**  
**Instagram:**  
**@bananbananjosten**  
**WhatsApp edota zuzenean**  
**deituz: 647 446 394.**



# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Txonpoa

*Ze usai do plazerrak; ze usai tristurek, penak. Ze usai do ume jaio berri baten lepondoak. Ze usai do udaberriek; ta udazkenak?*

*Kuriosoa da usaiena. Zalle da udaberrien usaiet hitzek jartzea, baño galdera indakoan denok goatuko giñen udaberriko berde usaiekin. Zalle da plazerran usaiet hitzek jartzea, baño larrualdi baten ondorengo usai sarkor hoi zeñek ez do arnastu letra hotan.*

*Ze usai do hondartzak. Ze usai do udako ebi jasa baten ondoren asfaltoak botatzeon lurrin horrek. Ze usai aurreko kotxeak botatzeon keak, o txabolako tximini ondoan atsaldea pasa ondoren eantzitako arropak. Ze usai do eskalletan gora korrika heldu den kafe in berrien usaiet. Ze usai do patxaranak, ardoak, saardoak. Ze usai do parrandak? Ta ondorenak? Ze usai do hezetasunek? Ta gooldioak? Ze usai besarkatzen gattu aspaldi joan ez gean etxe hortako sarralle jira orduko. Nolakoa da itxi usaiet? Ta ze usai klase da elizetan eantsita daun hoi?*

*Ze usai do haurtzaroak? Ze usai do palote batek; ta mentazko txikleak? Zeñi gustatzen zaio regaliz beltzan usaiet; ta txokolateana, zeñi ez? Ze usai due suen gañean por-por ai deen baarronak. Ze usai do gaztak, ta ze usai dola esango ziñueke ardiñ illeak? Ta gatzaiet? Ta mamiet? Nola da posible horren usai txarra don gauze batekin horren gauze gozoa ittea? Ze usai do patata tortillet? Ta tipule ustelak? Ze usai abixatzen diu fruten artean naranjan bat galtzen hasie daua... Lengoan etxean sartu ta a ze usai saltsa! Mille usaiet tartean antzemango niok ze usai den. Jakieten usaiet da. Haurtzaroko usaiet. Plazerran usaiet. Ekonomika usaiet. Ordutako por-porrin usaiet; usai sakona, sarkorra, txarra, baño geoko gozameneako beharrezkoa. Txonpoa!*

*Etzetik kanpo sekule ikusi, usaiñdu ta jan ez toten jakie da txonpoa. Urdaie bukatzen denean hezur hue ongi ongi eosi eta geatzen den jakie da txonpoa! Mille jakin artean seittun antzemango niokena; mille usaiet artean seittun ezautuko nukena. Txonpoa; txerrie hil, aztu eta gerora re aprobetxatzen den puske. Plazer hutse!*

# Amazabal Institutuko jantoki zerbitzua galtzeko arriskuan

**Amazabal Institutuko Guraso Elkartek eta institutua erreferentzia zentro duen ikastetxeetako Guraso Elkartek jantoki zerbitzua mantentzeko sinadura bilketa jarri dute abian.**

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Amazabal Institutuko jantoki zerbitzua diruz laguntzeari utziko diola iragarri zuen joan den ikasturtean. Goizueta, Arano, Ezkurra, Leitzara, Areso, Lekunberri, Larraun, Araitz eta Beteluko DBHko ikasleak izanen dira kaltetuenak. Garraiatuak diren ikasleak izan ohi baitira bertan bazkaltzen gelditzen direnak. Estitxu Lertxundi (Amazabal Institutuko Guraso Elkarteko kidea), Fran Bravo (Ibarberriko Guraso Elkarteko kidea) eta Ane Urdanpilleta eta Idoia Goikoetxearekin (Araxes Ikastetxeetako Guraso Elkarteko kideak) elkartu gara egoera gertutik ezagutzeko.

Fran: "Guk iaz izan genuen arazo honen berri. Hezkuntza Departamentuak jantoki zerbitzua institutu honetan bakarrik eskaintzen zela esan zigun eta bertan behera utziko zuela. Ez gara bakarrik, baina egia da oso gutxi garelako jantoki zerbitzuarekin gelditzen garen zentroak. Zerbitzua kenduz gero, ez dakigu zer planteatuko duen, baina ordutegi jarraitua ezarri nahi dutela uste dugu".

Ordutegi jarraia ezarriko balitz,

DBHko ikasleek Batxilergokoan ordutegi bera izanen lukete. Klase ordu berberak izanen lituzkete eta ondorioz, ordu berean aterako lirarteke. Estitxu: "Irakasle eta profesionalen iritzia ere jaso dugu eta denok bat egiten dugu, DBHko ikasleak oraindik oso gaztetxoak dira horren goiz jai-ki eta gero, arratsaldeko laurak arte bazkaldu gabe egoteko. Adin horretan ikasle asko oraindik garatzeke daude eta osasun aldetik ez da ona eta klase ordu gehiago izatea ere ez da gomen-dagarria".

Gaur egun, Larraun, Lekunberri, Betelu eta Araizko ikasleen kasuan, goizeko 7:15ak aldera hartzen dute

Leitzara joateko autobusa. Leitzara iritsitakoan, ordu erdi egon ohi dira klasera sartzeko zain. Garraioa hala dago antolatuta arazo meteorologikoek sor ditzaketan atzerapenei aurre egiteko. DBHko ikasleek eguerdiko 14:20ean amaitzen dituzte klaseak eta Batxilergokoek berriz 15:15ean. Tarte horretan DBHkoek bertan bazkaltzeko aprobetxatu ohi dute eta ondoren, elkarrekin bueltatzen dira etxera.

Estitxu: "Leitzan edo gertu bizi direnentzat ez da arazoa, baina Goizuetan edo Larraun edota Araizko zenbait herritan bizi direnentzat gogorra da ordubete eman beharra etxera iristeko



**"Guraso elkarteetako kideak, Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin bilduko dira aurki"**

eta gainera bazkaldu gabe. Batxilergo-koentzat gogorra izaten bada, pentsa hamalau urteko gaztetxo horientzat zer litzatekeen egunero lauetan bazkaldu beharra".

Ane: "Aski gogorra da garraioa bera, gainera jantoki zerbitzua kentzeko. Araizko ikasleen kasuan bi garraio hartzen dituzte ikastetxera joateko, lehenik taxia eta gero autobusa eta bueltakoan alderantziz".

Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzat iaz bilakatu zen Amazabal erreferentzia zentro, guraso askoren urte luzeko borrokaren ondoren. Amazabal erreferentzia zentro bilakatzearekin DBHko ikasleek besteak beste etxera bazkalduta iristeko aukera bereganatu zuten. Urtebete eta gero, Hezkuntza Departamentuak gure landa eremuko ikasleen ikasteko baldintzak berriro gogor ditzakeen neurria hartu nahi du.

Iaz neurri berriaren berri izan zutenean, guraso elkarteak mobilizatzen hasi ziren eta Hezkuntza Departamentuak urtebeteko luzapena eskaini zien. Ez dute ulertzen landa eremuko ezaugarriak eta beharrak kontuan ez hartzea. Fran: "Nire ustez, honen atzean interes politikoak daude, bere garaian erreferentzia zentroa aldatzeko jarritako mugen atzean zeuden berberak. Amazabal Institutuaren alde egiteak eremu euskaldunaren alde egitea esan nahi baitu".

Estitxu: "Ikastetxeak elkargune garrantzitsuak dira. Eskualde ezberdinetako ikasleek bizipen ugari bizitzen dituzte elkarrekin. Esperientzia positibo horiek eraginen dute neurri batean

euren goi mailako ikasketak egin eta gero landa eremuan lana sortzeko gai izatea eta landa eremuaren alde egitea. Aurten esaterako, DBH 3. mailan ia 90 ikasle daude eta horietatik erdiak garraiatuak dira".

Landa eremuan asko dira lan egi-tera kanpora joan beharra dutenak. Ondorioz, ordutegi jarraia jarriko balitz, guraso asko ez lirateke etxean egonen euren hamalau urteko seme-alabak bazkaldu gabe iristen direnerako. Dena bihurtzen da zailtasun landa eremuan: enplegua, internet konexioa, garraioa eta gaztetxoentzat baita ikastea ere.

Apirilean izan ohi den matrikulazio epea hurbiltzen ari da eta guraso elkarteak batzen hasi dira Hezkuntza Departamentuari eta udalei orain arteko ordutegi bera mantendu dadila eskatuz. Hori aldatzen ez bada jangela zerbitzua mantentzeko aukera izanen dutelako. Estitxu: "Matrikulazio epea gainean dugu eta dagoeneko jakin beharra daukagu zer izanen dugu datorren ikasturtean. Gurasoek informazio guztia izan dezatela nahi dugu".

Guraso elkarteetako kideak, Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin bilduko dira aurki eta dagoeneko jangela zerbitzuaren aldeko sinadura bilketa jarri dute martxan, udalei jangela diruz lagundu dezatela eskatzeko. Jangela zerbitzua beharrezkoa dela uste baitute DBH-ko ikasle garraiatuen ongizatea eta osasuna zaintzeko eta ikasle guztien, bai DBH bai Batxilergoko ikasle garraiatuei etxerako itzulia bermatzeko.

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIURU BAR**

GTXGKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK

948504352

**ALIPROX**  
Lekunberri

janaridenda

hamabostaldi  
eskaintza bereziak



**CONSTRUCCIONES**

**ERAIKUNTZAK**

**CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.**

TEILATUAK  
FATXADAK

**ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA**

665 708 683

Lekunberri

*Uxue Etxarri Oderitzen bizi da, hamasei urte ditu. Amazabal Institutuan DBH 3. eta 4. maila ikasi eta gero, orain Batxilergoko lehen mailan dabil.*

## “Jantokirik gabe gogorra litzateke”

**Uxue, zuk ikastetxera egin behar izaten duzun bidea ere ez da edonolakoa e!**

Ez. Larraunen bi autobus ditugu. Nire a Oderiztik hasi eta Astitz, Alli eta Baraibartik pasatzen da eta Lekunberri zenbait ikasle hartu eta gero Albiase eta Uitzira joaten da eta handik Leitzara. Beste autobusa Aldatz, Etxarri eta Arruitzera joaten da. Gero Lekunberriko ikasleak hartzen ditu eta Gorritin geldialdia egiten du Leitzara iritsi baino lehen.

**Oderizkoen kasuan, zein ordutan hartzen duzue autobusa goizetan?**

Goizetan 7:15ean etortzen da autobusa herrira eta 8:00etan iristen gara Leitzara, nahiz eta klaseak 8:25ean

hasi. Kanean zain gelditzen gara.

**Neguan ere kanean egoten zarete?**

Eguraldi txarrarekin batzuk frontoian egoten dira eta beste batzuk jarri berri duten karpan.

**Etxera bueltatzeko autobusa zein ordutan hartzen duzue?**

Hirurak eta hamarretan irteten gara eta ni arratsaldeko lauetan iristen naiz Oderitzera. Orduan bazkaltzen dut. DBHn jantokirik gabe gogorra izango litzateke. Iaz ere ni arratsaldeko lauetan iristen nintzen etxera, baina bazkalduta. Arratsaldeko lauetan bazkaltzea gogorra da, baina gainera gosez egon eta zain egon beharra are eta gogorragoa.



29

*Ainhoa Paraderak 15 urte ditu, Intzakoa da eta DBH4. maila ikasten dabil Amazabal Institutuan.*

## “Goizeko 6:30ean esnatu ohi naiz”

**Goizetan zein ordutan ateratzen zara, Ainhoa?**

Goizeko 6:30ean esnatu ohi naiz eta autobusa 7:25ean hartzen dugu herrian. Taxian jaisten gara Beteluko aparkalekuraino. Bi taxi ibiltzen dira garraioan. Batek errazkindarrak jaisten ditu lehenik eta Intzara etortzen da gero. Eta bigarrenak Azkarate, Uztegi eta Gaintzakoak jaisten ditu. Betelun, Atallu eta Arribetik datorren autobusean igotzen gara.

**Eta handik Leitzara?**

8:00etarako iristen gara institutura. Eta klaseak hasi bitartean kanpoan egoten gara. Hotz handia egiten badu institutura sartzen gara, baina berez debekatuta dago. Eta beste batzuetan frontoia irekitzen digute. Baina gehienetan kanpoan itxaron behar, baita eguraldi txarrarekin ere.

**Eta eguerdian zein ordutan amaitzen duzue?**

14:20ean amaitzen ditugu klaseak eta hirurak eta hamar bitarte bazkaltzeko tartea daukagu.

**Zeintzuk gelditzen zarete bertan bazkaltzera?**

Areso, Arano, Goizueta, Lekunberri, Larraun, Araitz, Betelu eta baita Leitzako ikasle batzuk ere. Jende asko elkartzten gara jantokian. Kenduko balute, Batxilergokoei itxaron beharko genieke. Orain 15:40ean iristen naiz etxera, baina bazkalduta. Jantokia kenduko balute ordu horretan iritsiko nintzateke baina bazkaldu gabe. Herri txikietan bizi garenok denbora gehiago pasatzen dugu bidaian. Ostiraletan, 14:20ean amaitzen ditugu klaseak, baina gure taxia lehenik Lezaetara joaten da, gero Errazkinera eta azkenik Intzara.



## EUSKARA IKASI EDO PRAKTIKATU NAHI DUZU?

Larraungo AEK Euskaltegiak aurten eskainiko dituen euskara ikastaroen ordutegiak kaleratu ditu. Hasiera mailatik B1 mailara arteko ezagutza zeureganatzeko aukera eskaintzen dute eta baita autoikaskuntza ere. Hona hemen ordutegiak:

- Hasiera maila (urrian hasitakoak): Astearte eta ostegunetan 18:15 / 20:45
- A1 maila: Astelehen eta asteazkenetan 17:30 / 20:00
- A2 maila: Astearte eta ostegunetan 09:15 / 11:45
- B1 maila: Astelehen eta asteazkenetan 09:30-12:00
- Autoikaskuntza: maila eta ordutegi guztietan.

Gogoratu Iparraldeko Euskara Mankomunitateek nahiz Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak eskaintzen dituztela.

Bestetik, Larraunen martxan dira ere Mintzakide taldeak. Taldera batu nahi?

Informa zaitez:

948 604 704 / 607 622 102

larraun@aeek.eus

Artzanegi 6, behea



Euskara praktikatu nahi?  
Lagun berriak egin nahi?  
Lekunberri elkartzeko gara:

Astelehenean	17:00etan	Paseo bat
Asteartean	10:00etan	AEK euskaltegian
Ostiralean	15:30ean	Kantinan

\*Taldea gehiago sortzeko aukera

ANIMATU ETA EMAN IZENA!



**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Asteleheneetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**AURRERA TABERNA**  
ARALAR, 15  
948 60 47 24

**TAXI SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**urrutia ekea**  
etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**  
ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

**Iñigo Garaioa**  
**MARGOLARIA**  
696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**ce consulting**  
empresarial  
ANA RAMOS MARTÍN  
**GESTORIA**  
666 939 332  
aramos@ceconsulting.es

**GALBURU eco**  
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa  
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## ▶ AGENDA



### OTSAILA

**05** - PRINTZA 18:30. Dokumentala. *Deabruaren errotak. Energia berriztagarriak. Stop espekulazioari.* Ahotsa eta Sustrai Fundazioa.

**14** - PRINTZA. 17:00. HITZALDIA. Okupazioaren kontrako ofentsiba aztergai. Erraki.

**19** - PRINTZA. 16:00 - 19:30. Muxutruk. Ekarri edota hartu nahi duzuna: arropa, jostailuak...

**27** - PRINTZA. 18:00. Kontzertua: Serge.

**INFORMAZIO GEHIAGO  
ESKURATZEKO, SARTU  
WEBGUNEETAN**



Printza Youtuben:



Printza Twitterren:



## MIKROIPUIN LEHIAKETAKO SARIDUNAK!

Urte berriarekin batera jaso dugu, joan den abenduan Larraunen banatutako Mikroipuin Lehiaketako balorazioaren berri. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta zegoen eta guztira 177 lan jaso ziren. Euskara Batzordeak balorazio oso positiboa egin du. Euskararen Egunarekin batera egin zen sari banaketaren ekitaldia. Honako hauek izan ziren lehen edizio honetako idazle onenak:

LH 5-6: " Joku baten meta, Everesta". Egilea: Naia Galarza Noguera ( Lekunberri)

DBH 1-2: " Leiho maitemindua". Egilea: Mattin Goikoetxea Goiogana ( Lekunberri)

DBH 3-4: " Merkealdiko ehiztaria". Egilea: Enara Arozena Sestorain ( Leitza)



## ▶ MERKATU TXIKIA

### LAN BILA

▶ Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

### EROSTEKO

▶ Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

# Etxe bat



## bazkide bat



Conchi Cruz izan da hilabete honetako bazkideen zozketako irabazlea!  
Patxi Zubizarreta eta Jokin Mitxelenaren "Garalar Maralar" bildumako bina liburu jasoko ditu opari!  
Zorionak!

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE  
ETA ZUZENEAN BI HILABETERO  
EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE  
HARTUKO DUZU!

## MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:  
MAILOPE@LABRIT.NET  
638 652 339

[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)